

142. FITXA ARABA – Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeetako auzo harremanak sustatzeko programako ekimenetarako laguntza lerroaren 2026ko deialdia

Norentzat: arabar kontzejuak, baita 500 biztanle baino gutxiagoko gunek bakarreko arabar udalak edo biztanle gehiagokoak ere bai auzoetan edo udalari zuzenean atxikitako biztanle guneetan jarduerak egiteko, Arabako Foru Nomenklatorean hala jasota baldin badaude berariaz eta 500 biztanle baino gehiago ez badituzte.

Sartzeko lotura: [Auzo harremanak sustatzea \(Auzolan\) - egoitza](#)

Erreferentziazko araudia: [291/2025 Erabakia, maiatzaren 27koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeetako auzo harremanak sustatzeko programako ekimenetarako laguntza lerroaren 2026ko deialdia](#)

Arloak: Lurralde Oreka

Diru hornidura: 684.277 €

Aurkezteko epemuga: 2025/07/11

Laburpena

Arabako Lurralde Historikoko toki erakundetako **auzo harremanak sustatzeko programako ekimenetarako** laguntzak dira, 2026ko deialdirako.

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak

Dirulaguntzak jaso ditzakete 21/2013 Foru Arauaren 6. artikuluan jasota dauden jarduketa motek:

- Urak hornitzeko edo saneamendu sareen zati baten konponketa ez espezializatuak, kaleen edo bide publikoen zoladura, sistema honen bidez egin ahal badira.
- Kontzejuko aretoen, Gizarte zentroen, titulartasun publikoko kultuko tokien, bolatokien obra txikiak, teilatuak, konponketak eta konponketa ez espezializatuak egiteko, edo Obren eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen 19/2010 Foru Arauko 7. artikuluko 3. atalean jaso eta enuntziatutako tokiko ekipamenduen beste kontzeptu batzuetarako.
- Lorategiak, fatxadak, espazio komunak eta abar konponduz, herria apaindu edo edertzeko

jardunak.

- d) Bideak, bidexkak, errekek, ur-bazterrak eta ureztatze-ubideak garbitzeko eta mantentzeko obrak.

Baldin eta 6. artikulua horrek aipatzen dituen jarduketak gauzatzeko erakunde eskudunen baimena edota aldeko txostena behar bada, jarduketari ekin baino lehen eduki beharko da.

Baldin eta eskatutako jarduketa bideetan egin beharrekoa bada, mantentze edo garbiketa jarduketak hartuko dira aintzat, eta salbuespen gisa hormigoizko zoladurak, inguruabar fisikoek hala aholkatzen badute (adibidez, malda nabarmenetan), aurkeztutako dokumentazio teknikoan horrela definitzen badira eta, Arabako Foru Aldundiaren Bideen Erregistroan sartutako bideen kasuan, Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak berariaz aholkatzen badu hurrengo paragrafoan aipatzen den txostenean.

Nolanahi ere, eskatutako jarduketa baldin bada obrak Arabako Foru Aldundiaren Bideen Erregistroan sartutako bideetan egiteko, Nekazaritza Saileko Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak aurrekontua edo txosten teknikoa egingo du prozeduraren instrukzio txostena eman aurretik.

Legez definitutako zona arkeologikoetan jardunez gero (kategoria edozein dela ere), nahitaezkoa da Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuaren txostena edukitzea.

21/2013 Foru Arauaren 8. artikulua 6. apartatua ezarritakoaren ondorioetarako, laguntza eskatzen duen toki erakundea ondasunen eta eskubideen titulartzat joko da, soilik baldin eta ondasun edo eskubide horiek haren izenean badaude inskribatuta jabetza erregistroan edo, bestela, toki erakundearen ondasunen inbentarioan haren jabetzakoak direla jasota badago.

Gastuen aldi hautagarria

Deialdi honen babesean diruz lagundutako obrak gauzatzeko jarri den muga eguna **2026ko azaroaren 30a** da.